Lukuak: euskararen kontsumoa Arabako Errioxan

AURREKO BERBERANAREN ALEAN EMAN GENIZUEN EGITASMO HONEN BERRI. ORAINGOAN PARTE-HARTZAILEETAKO BATZUEI DAGOKIE EUREN IKUSPEGIA ZABALTZEA ETA EMATEN ARI DIREN AURRERAPAUSO ETA EGOERARI BURUZKO HAUSNARKETA EGITEA

MAISULAN

1. Zein balio erantsi eman ahal dio zuen enpresari euskaraz aritzea?

Gu Arabako Errioxako upategi txiki bat gara. Errioxa eta Nafarroarekin mugan gaudenez, zailtasunak daude euskaraz aritzeko orduan, ez dagoelako ohitura handirik erabiltzeko. Hala ere, beti saiatu izan gara euskal kulturari leial izaten gure izaeraren parte delako. Hasieratik gure ardoekin euskal identitatea islatzea bilatu dugu, baina Euskal Herriko jendearekin gehiago enpatizatu nahi badugu, euskara erabiltzea beharrezkoa dela uste degu. Azken finean, hizkuntza identitatearen parte da eta horretan ez genuke amore eman behar.

2. LUKUEN bidez hizkuntzaren aldeko apostu egitea (hizkuntza paisaia, etiketajea, euskararen erabilera sare sozialetan... onurak ekarri ahal dizkio zuen enpresari?

Gaur egun, merkatua oso lehiakorra da eta gauza txikiak dira gainontzekoengandik desberditzen gaituztenak. Kasu askotan, enpresa txikiak baliabiderik ez dugu ekimen berriak aurrera eramateko. Beraz, oso lagungarria izan daiteke LUKUAK bezalako proiektuak eskaintzen dizkigun erraztasunak euskararen aldeko apostua egiteko. Adibidez, sare sozialetan edo web orrian euskararen erabilera sustatzen laguntzeak, hizkuntza komun baten bidez beste euskaldunekin konektatzen laguntzen digu, gure identitateari leial mantenduz.

3. Euskarak ezberdindu gaitzake gainontzeko eskaintzengandik?

Bai, nazio baten hizkuntza bere kulturarekin lotuta dago. Espainian hizkuntza ezberdinak erabiltzen dira zonaldearen arabera. Gure kasuan, euskarak gu ordezkatzen gaituen hizkuntza da. Soilik Euskal Herrian erabiltzen denez, normalena da beste eremutako pertsonek ez izatea aukerarik euskara erabiltzeko komunikatzeko orduan, ez dakitelako euskeraz hitz egiten. Honek guri abantaila ematen digu gainontzeko eskaintzengandik gure ardoa Euskal Herrian saldu nahi dugunean.

La bodega insiste en que el euskera refuerza su identidad de marca porque es una herramienta imprescindible para fortalecer la empatía y el vínculo con Euskal Herria. Proyectos como LUKUAK, además, ofreciendo recursos a pequeñas empresas, facilitan la presencia del euskera en redes sociales, etiquetas y comunicación. Por último, señalan que el euskera es un elemento estratégico que sirve para diferenciarse en el mercado, especialmente a la hora de vender vino en Euskal Herria.

IDIAQUEZ

1. Zein balio erantsi eman ahal dio zuen enpresari euskaraz aritzea?

Guretzat, webguneak eta sare sozialak euskaraz ere egoteak asko esan nahi du, era horretan, guk trasmititu nahi dioguna eta hark bere ama hizkuntzan jasotzea garrantzitsua da. Guk erraztu behar diogu gurekin nola harremanetan jarri, aukera eman behar diogu orori euskaraz komunikatzeko eta jende horri gurekin ororentzat euskaraz komunikatzea izatea eragiten du.

2. LUKUEN bidez hizkuntzaren aldeko apustu egitea (hizkuntza paisaia, etiketajea, euskararen erabilera sare sozialetan... onurak ekarri ahal dizkio zuen enpresari?,

Onura ekonomiko zuzenik ez du ekarriko, seguruenik. Baina irudiari erreparatzen badiogu bai, zergatik? Euskara sustatzeko eta enpresan integratzeko ahalegin horrek bezeroarengan onurak ekarriko dizkigu. Bezeroarekiko harreman hori euskaraz eman daitekeela ere ikusaraziko baitiogu.

3. Euskarak ezberdindu gaitzake gainontzeko eskaintzetatik?

Ez dakigu, Egiazki euskara ez da gure benetako identitatea, langile bakar batek hitz egiten baitu euskara.

Baina LUKUAK bezalako ekimen baten parte izateak gure bezeroen beharretara hurbiltzen laguntzen gaitu.

La empresa de Baños de Ebro entiende la presencia del euskera en la web y en las redes sociales como un recurso para mantener una relación más cercana con el cliente. La apuesta a través de LUKUAK no les reportará beneficios económicos directos, pero sí un valor asociado a la imagen y la confianza en el cliente. Aunque el euskera no es el idioma cotidiano de la empresa, la iniciativa les permite acercarse a las necesidades de sus clientes.

EUSKALGINTZAREN IZENEAN

Ze onura ekar diezaioke euskarari Arabako Errioxan LUKUAK bezalako proiektu bat martxan jartzea?

LUKUAK bezalako proiektu batek eragin estrategikoa izan dezake euskararen biziberritzean Arabako Errioxako testuinguruan; izan ere, euskara eskolatik eta jarduera formaletatik harago eramaten du, saltoki txikietako kontsumo eta harreman espazio errealetara. Horrek hizkuntza-ohituretan eragiteko aukera ematen du, bezeroak, langileak eta hornitzaileak euskararekin harreman naturaletan jarriz. Aldi berean, euskarari balio sozial eta ekonomikoa ematen dio, tokiko merkataritzarentzat, turismoarentzat eta eskualdearen nortasunarentzat balio erantsia bihurtuz. Horren bidez, euskara ez da soilik kultur kontu gisa ulertzen, baizik eta garapenaren aliatu gisa; komunitatea saretu egiten du, haren ikusgarritasuna eta prestigioa handitzen dira, eta kalitatearekin lotutako hizkuntza erabilgarria, gertukoa, praktikoa eta modernoa dela erakusten du.

Eragin esparru gehiago identifika ditzakegu LUKUAK aparte?

LUKUAKez gain, euskarak eragin esparru estrategiko gehiago ditu: aisialdia eta harreman informalak, bereziki gazteen mundua, jai giroa eta kultura sormena, hizkuntza-ohiturak naturaltasunez finkatzen direlako; familia eremua, transmisiorako giltzarria den heinean, gurasoen sentsibilizazioa, baliabideen eskaintza eta eskolaz kanpoko jarduerak uztartuz; turismoa eta bisitarientzako eskaintza, gaur egun euskararen presentzia oso urria delako eta aukera handia dagoelako haren ikusgarritasuna indartzeko; teknologia eta sare sozialak, saltokiak eta gazteak euskarara hurbiltzeko bide nagusietako bat direlako; eta, azkenik, herri mailako kirol klubak, haur eta gazte ia guztiz euskaldunen artean, entrenamendu eta komunikazioak euskaraz izanik hizkuntza naturaltasunez erabiltzeko gune giltzarri direlako.

Para Ttiki-ttaka, en representación de la actividad cultural en euskera, proyectos como LUKUAK llevan el euskera más allá de la escuela, a ámbitos de consumo y relación cotidianos en Rioja Alavesa, incidiendo en los hábitos lingüísticos y dotando al euskera de un valor social, económico e identitario. Además, el ocio, la familia, el turismo, las redes sociales y el deporte también son unos espacios de gran influencia para consolidar con naturalidad el uso del euskera.

ENEKO BARRENA

Laguardiako DELA saltokien elkartearekin elkarlanean dabilen Merkataritza Teknikaria

Ze onura ekar diezaioke euskarari Arabako Errioxan LUKUAK bezalako proiektu bat martxan jartzea?

Lukuak proiektuaren bidez euskara lan munduan eta arlo ekonomikoan sartzea lagunduko du, bizilagunen egunerokotasunean txertatzeko. Komertzio, upategi, jatetxeak, etab. beraien zerbitzua euskaraz emateko aukera sustatzen badugu bezeroak eta turistak ere mugi dezakegu erabilpena handitzeko. Modu horretan, euskara esparru formalean bakarrik geldi-tzea ekidin dugu, normalizazio eta erabilpena sustatuz.

Eragin esparru gehiago identifika ditzakegu LUKUAK aparte?

LUKUAK proiektua enpresa-munduan zentratzen den arren, beste hainbat esparrutan ere lan egin daiteke. Esan den moduan aisaldia eta egunerokotasunean bisitatzen diren tokiak ezinbestekoak dira normalizazio prozesuaren barnean. Antolatzen diren ekintzak (kirolak, antzezlanak, jaialdiak) euskaraz edo lehen momentu batean bilinguez aldaketa pizteko.

Para Eneko, el Técnico de Comercio, LUKUAK "contribuye a llevar el euskera al mundo laboral y económico, incorporándolo al uso cotidiano de los vecinos". Fomentar la atención en euskera en comercios, bodegas y restaurantes puede aumentar el uso de clientes y turistas, sacando el euskera del ámbito formal. Además, considera fundamental reforzar la presencia del euskera en el ocio, el deporte y los eventos culturales para llevar a cabo la normalización.

ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA, EUSKARA ZERBITZUA

MAHASTIZAINTZA ETA ARDOGINTZA ESKUALDEAREN MOTOREA IZANIK ZER EGIN BEHARKO GENUKE EUSKARA INTEGRATZEKO SEKTOREAN ELEMENTU BEREIZLE IZAN DADIN?

Ardoaren munduan "jatorria", "benekotasuna" eta "narratiba" itzelezko ardatzak dira, lehia handiko elementuak, zalantzarik gabe. Euskarak horiek guztiak indartzen ditu, berezitasuna eta nortasuna emanez. Helburua ez da elebitasun osoa baizik eta euskararen presentzia duina bermatzea, lurralde marka indartuz.

Nola?

Sektoreko langileek bestela ere lana soberan dute, beraz, modu praktikoan eta sinplean hurbildu behar zaio euskara.

Etiketetan datu esanguratsuak: mahasti, lurra- izenak, metafora txikiak, ukitu garbi eta dotorea.

Hiztegi propioa landu (erakunde, aditu eta bestelako izen deiturekin harremanetan) eta zabaldu, ikastetxeetatik hasi, lanbide heziketan eta EDAraino.

Euskal toponimoen bilduma, orokorra eta herrika.

Upategien bisita-eskaintzetan euskarazkoak txertatu, ahal dela.

Ardo-dastaketetan euskararen presentzia bermatu, hiztegi txiki bistara, mahai gainekoetan, adibidez, (euskaldunak ez direnak non dauden jakin dezaten eta, euskaldunek ere bai).

Euskara produktu-esperientzia bihurtzea: bost minutuko mikro-bizipenak ("euskarazko 5 hitz ardo honi buruz", txapelketa, neguko "urrezko sudurra" moduko dastaketa-lehiaketa antolatu, "ardoari euskaraz kantatu (ardoarekin zerikusia duten abestien bilduma)"

ARDOGINTZAK ZE ELEMENTU BEREIZGARRI ERABILI BEHARKO LITUZKE BERTOKOA ETA BERTOKOENTZAT DELA ADIERAZTEKO?

Komunikazioan, izaera-identitatea, paisaia, hizkuntza eta narrazioa txertatzean dago gakoa, lurraldearen eta pertsonen marka indartuz.

Izen propioak berreskuratu daitezke, euskal jatorrizkoak badaude eta "terroir" kutsua ematen dio. Eta euskaldundutako toki izenak.

Esamolde txikia gehituz: "Arabako Errioxan sortua. Araban ekoitzia, Lurrak emana, herritarrek egina. %100 gure lurrekoa. Ekoizpen mugatua, Izen propioz egina, Gure lurraren arima, Tokikoa, Arabako bihotzekoa, euskal ukituaz"... erakoak. Kontsumitzailea xaxatzekoak: "hemen egina, hemen kontsumitzeko"

Definizio motza, teknikoa edo QR-a izenaren ondoan.

Komuneko ikur-irudi mota bat.

Ondorioz, sektoreari prestigio ematen dioten erabakiak hartu behar dira, ekoizleak erraz hartzeko modukoak eta kontsumitzaileari gertutasuna identitatea helarazten diotena.

KUADRILLAK eta ERAKUNDEEK EGITEKO BALIZKO BIDE ORRI BAT...

1. Harremanak sortu (ekoizleekin elkarrizketak, pilotajeak, beharrak ezagutu..)
2. Prestatuta eraman behar duten hori (etiketa, hiztegi, txantiloi, gidoiak, mahaigaina..)
3. Euskaratzeko laguntza zuzenak (paisaia, etiketak, dastaketa fitxak, mahai gainekoak..)

4. Diskurtso berria landu: "kalitatea, premium izaeraren sinadura, euskara"
5. Ekoizleari prestigioa eta egindakoa aintzat hartu: "Euskara eta Ardoa Saria" moduko zerbait Mahats bilketaren jaian , aitorpen txikiak jakinarazi, eta abar..

Desde el punto de vista de la Cuadrilla, el euskera es un distintivo estratégico en el sector vitivinícola, ya que refuerza su origen, autenticidad e identidad territorial. No se busca el bilingüismo completo, sino incorporar la presencia digna y práctica del euskera en la etiqueta, las visitas, las catas y la experiencia del producto. Para ello, se propone elaborar un diccionario propio, recuperar la toponimia y convertir el euskera en un valor producto a través de micro-experiencias, combinando el apoyo directo de las instituciones, la formación y el reconocimiento de los productores que adopten las medidas propuestas.

Campaña de concienciación social para el consumo racional de agua en Rioja Alavesa

Gizartea kontzientziatzeko kanpaina, Arabako Errioxan uraren kontsumoa zentzuzkoa izan dadin

Laguardia, Elvillar-Bilar, Kripan, Lanciego-Lantziego, Viñaspre, Yécora, Barriobusto, Labraza, Moreda de Álava, Oyón-Oion, Laserna, Assa, El Campillar, La Puebla de Labarca, Páganos, Leza, Navaridas, Elciego, Baños de Ebro, Villabuena de Álava, Samaniego, Labastida, Salinillas de Buradón.

AYUDA AL MEDIO AMBIENTE
¡PÍDENOS TU FACTURA POR E-MAIL!

Arabako Errioxako URKIDETZA Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa

Facilita tu lectura de contador para evitar acumulación de consumos.
Teléfono gratuito 24 h: 900 878 504

Ayúdanos a mejorar
Si existe alguna incidencia en el abastecimiento o detecta alguna fuga en la red:
Teléfono de asistencia técnica 24 h.
Teléfono Laguardia: 945 600 833

Hobetzea lagun gaitzazu
Horniduran arazorik badago edo sarean ihesik detektatzen baduzu:
Laguntza teknikoko 24 orduko telefonoa.
administracion@urariojaalavesa.eus